



HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016/05/18

BILERA ZENBAKIA: 5

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Joxeluis, M^aJose, Amaia, Tere, Rosario, Maddi, Maite

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. HURRENGO HILABETEKO KULTUR EKINTZAK:

- Maiatzak 21. Gure Esku Dago eguna. Presaketa lanetan, jendea animatu eta apuntatu dadila tortila lehiaketara.
- Maiatzak 23. Nerea Mendizabalen hitzaldia. Guraso elkarteak antolatuta.
- Maiatzak 24-31. Memoria tailerra ongizate batzordearen eskutik, jubilatuta elkartean.
- Ekainak 1. Jai Batzordea
- Gogorarazi nahi da, ongizateko pelikuletara jende gutxi etortzen dela, beraz jendea animatu.
- Ekainak 23. San Juan sua.
 - Ardurak ondo banatu behar dira. Kultura batzordea arduratu lanak banatzeaz eta arduradunari abixatzeaz.
 - Dantzak: Maddi; Sua piztu eta itzali: _____; Erosketak: _____; Parrilla: _____;...

2. HERRIKO JAIK:

Festa Batzordea osatu dela eta, hainbatetan gai batzuen inguruko zalantzak azaldu dira, beraz Herri Bizitzan eztabaidatzea erabaki da:

1.- PARTE HARTZEA

Jendea parte hartzera animatu behar dugu, ez bakarrik festetako ekintzetan (hori ere bai) antolakuntzan bertan. Garrantzitsua da festa batzordean ahalik eta ordezkaritza zabalena egotea denon gustoko jaiak



izateko.

2.- SARIAK

Garrantzia parte hartzeari eman nahi zaio eta ez irabazteari, beraz, parte hartzaile guztiei sariak ematea erabaki da. Sarien artean medailak, diplomak... horrelako ideiak daude. Fetsa Batzordean erabakiko da. Kontuan izan hau haurren zein helduen sarietan aplikatu beharko dela.

3.- BARRAKAK

Iaz barrakak garestiegi zirenaren kontua atera da behin eta berriz. Honen inguruan iritzi ezberdinak daude. Kontuan hartu argia ordaintzen zutela (gastu bat ere bazuten). Ez da erabakirik hartu. Prezioa jeitsi ahal bada jetsiko da, bestela iaz bezela izango da, garestiago behintzat ez.


4.- MUSIKA

Musika euskaldunaren aldeko jarrera bultzatu. Ikuskizunetan, barraketan (eskakakizuna egin), txoznetan, playbacka... ahal den neurrian, ezer debekatu gabe.

Ondoren, abuztuko jaietaz ere hitz egin da jubilatuekin:

- Abuztuaren 14an bazaria eta ondoren joku batzuk: bingoa, kartak, partxisa... antolatuko dituzte.
- Abuztuaren 15ean meza, hamaiketakoa eta toka. Arratsaldean sagardo dastaketa egin ohi da, baina azkeneko urteetan jende gutxi bildu da, beraz baloratu beharko da ea merezi duen ala ez.
- Iraileko jaietan, ostegunean Bino herrikoia egingo da jubilatuen elkartean 17:00etan.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Festa Batzordean abuztuko jaien ingurukoa eztabaidatu	Hurrengo batzordean (ekainak 21)	MADDI
San Juanetako ardurak banatu eta jendeari abixatu	Kulturako bileran	MAITE/ROSI



Kirol elkarteak	Hurrengo bilerako gai nagusia	MADDI/ROSI
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera, ekainaren 15ean egingo dugu. Kirol elkarteak gaia. Arduradunak Maddi eta Rosi.		